



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 24a

107. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/ITP-00024. Interpelazioa, Nafarroak industriaren arloan darabilen politikari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00279. Galdera, Kirol Jokoetako berrikuntzei buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (4. or.).
- 11-24/POR-00280. Galdera, Bibliobus zerbitzuaren gaineko balantzeari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00282. Galdera, gizarte-zerbitzuen arloan 2023an biztanle bakoitzeko egindako gastuari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00283. Galdera, Berdintasun planak egitea sustatzeko neurriei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00284. Galdera, "Nafarroa Marka" proiektuko parte-hartze prozesuari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00285. Galdera, medikuen eskasia arintzeko neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00286. Galdera, honako erabaki honen betetze-mailari buruzkoa: Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio urrats esanguratsuak eman ditzala hezkuntza arloko langileen lan-baldintzak hobetzeko. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00287. Galdera, herritarren energia-erkidegoei espazioak lagatzeari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00288. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren jarduerari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00289. Galdera, Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/POR-00290. Galdera, irakasleek irailaren 26rako deitu duten grebari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00291. Galdera, Nafarroan autonomoen kopurua handitzea sustatzeko neurriei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00292. Galdera, Nafarroan lan-istripuen kopuru handia jaisteko neurriei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00293. Galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko etorkizuneko foru-legean aurreikusten diren zerga-aldaketei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00294. Galdera, Euskara Nafarroa osoan inposatzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00295. Galdera, arrazoizko prezioko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00296. Galdera, belaunaldi-erleborako laguntzako CAMVIO programari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00297. Galdera, jakiteko zertan den eskualdatzeke dauden eskumenen eskualdaketa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00298. Galdera, etxebizitza publikoa eraikitzea sustatzeko neurriei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00299. Galdera, Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren arteko lankidetzeta-hitzaurreari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00300. Galdera, Espainiako Gobernuako lehendakariarekin izanen den bileran landuko diren gaii buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00301. Galdera, tentsiopeko esparruak izendatzeari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00302. Galdera, Nafarroarekin konprometitutako azpiegiturak egiteko Estatuak egiteke dituen inbertsioei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00303. Galdera, Arasti kontseilariaren 2024ko uztailaren 1eko foru-agindua ez betetzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00024. Interpelazioa, Nafarroak industriaren arloan darabilen politikari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako interpelazioa, Nafarroak industriaren arloan darabilen politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, Nafarroak industriaren arloan darabilen politikari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Jakin nahi dugu zein izanen den Nafarroako Gobernuaren politika orokorra Nafarroako enpresak bizi duen egoera arintzeko.

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00279. Galdera, Kirol Jokoetako berrikuntzei buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Kirol Jokoetako berrikuntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Kirol Jokoak kirola txikitan berdintasunez egitea bermatu duen programa finkatu baten erakusgarri dira; programa hori, hain zuzen ere, garatuz joan da eta kirol-balioak, ohitura osasungarriak eta kirolaren bidezko inklusioa eskaintzen ditu

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer helburu lortu nahi du Kirol Jokoetan sartu dituen aldaketei esker?

Iruñean, 2024ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00280. Galdera, Bibliobus zerbitzuaren gaineko balantzeari buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Bibliobus zerbitzuaren gaineko balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu honek bultzatutako Bibliobus zerbitzua lurraldea kulturaren bidez demokratizatzeko eta egituratzeko politiken arrakastaren erakusgarri da. Arrakasta horren erakusgarri dira, orobat, Estellerriko ibilbideak handitu izana eta zerbitzua Nafarroako beste eremu batzuetara zabaldu izana, Nafarroako aurrekontuetan jasotakoaren arabera.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer balantze egiten du Bibliobus zerbitzuaz?

Iruñean, 2024ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00282. Galdera, gizarte-zerbitzuen arloan 2023an biztanle bakoitzeko egindako gastuari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, gizarte-zerbitzuen arloan 2023an biztanle bakoitzeko egindako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Estatuko Elkarteak argitaratu duen txostenaren arabera, Nafarroa da biztanleko gizarte-gasturik handiena egiten duen erkidegoa. Txosten horrek orobat jartzen du agerian zer-nolako aldea dagoen autonomia-erkidego bakoitzak bere herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuei dagokienez.

Aurrekontuak zer igoera izan du azken urteotan eta biztanleko zer inbertsio egin du Nafarroak 2023ko ekitaldian gizarte-zerbitzuetan?

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00283. Galdera, Berdintasun planak egitea sustatzeko neurriei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Berdintasun planak egitea sustatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak 2024ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Langile Komisioak sindikatuaren salaketa publiko baten ondorioz jakin dugu gure erkidegoan berdintasun-plan bat taxutu behar duten enpresen % 57k ez duela halakorik egin.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak gogoan al darabil neurriren bat hartzea berdintasun-planak taxutu daitezzen sustatzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/POR-00284. Galdera, "Nafarroa Marka" proiektuko parte-hartze prozesuari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, "Nafarroa Marka" proiektuko parte-hartze prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garridok, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nolako diseinua izan da giltzarri diren gizarte-eragileek, bereziki eragile sindikalek, "Nafarroa Marka" proiektuaren diagnostikoa egitean eta ondoren garatzean parte hartzeari begira?

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00285. Galdera, medikuen eskasia arintzeko neurriei buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, medikuen eskasia arintzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan zer neurri jarri dira abian medikuen eskasia arintzeko, batez ere udako hilabeetan?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00286. Galdera, honako erabaki honen betetze-mailari buruzkoa: Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio urrats esanguratsuak eman ditzala hezkuntza arloko langileen lan-baldintzak hobetzeko*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, honako erabaki honen betetze-mailari buruzkoa: Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio urrats esanguratsuak eman ditzala hezkuntza arloko langileen lan-baldintzak hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Joan den apirilaren 26an, hezkuntzari buruzko Osoko Bilkura monografikoan, mozio bat onartu zen Hezkuntza Departamentuari eskatuz urrats esanguratsuak eman ditzala hezkuntza arloko langileen lan-baldintzak hobetzeko, eta horretarako beharrezkoak diren negoziazioak egin ditzala, hartutako neurriek datorren ikasturtean eta 2025eko aurrekontuetan isla izan dezaten.

Zein da mozio horretan jasotzen diren neurrien betetze-maila?

Iruña, 2024 irailaren 19an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00287. Galdera, herritarren energia-erkidegoei espazioak lagatzeari buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, herritarren energia-erkidegoei espazioak lagatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta

Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 1. artikulua honako hau ezartzen du: "Administrazio publikoek beren titularitateko ondarearen gaineko azalera edo espazio eskubide bat eratzten ahalko dute, herritarren energia-komunitateen edo tokiko energia-komunitateen alde, horiek legez eratu badira energia berriztagarria sortzeko edo energia biltegitzeko proiektuak aurrera eramateko edo komunitate horien definizioan azaltzen den xedea duten beste ekimen batzuk garatzeko".

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko ondarre-espazio horietatik zenbat laga zaizkie herritarren energia-komunitateei edo tokiko energia-komunitateei?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-24/POR-00288. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren jarduerari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren jarduerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Nafarroako Inbertsio Institutuak orain dela bi urte luze sortu zenetik izandako jardueraz?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/POR-00289. Galdera, Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektorialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola arinduko duzu Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektoriala Iruñeko geltoki berria eraikitzea errazteko eta 12.000 etxebizitza eraikitzeke lurzorua sortzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/POR-00290. Galdera, irakasleek irailaren 26rako deitu duten grebari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, irakasleek irailaren 26rako deitu duten grebari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du Hezkuntzako Mahai Sektorialean ordezkatuta dauden sindikatu guztiek irailaren 26rako deitu duten irakasleen grebari buruz?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-24/POR-00291. Galdera, Nafarroan autonomoen kopurua handitzea sustatzeko neurriei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroan autonomoen kopurua handitzea sustatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak irailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri zehatz eta aringarri hartuko dira Nafarroan autonomoen kopuruaren beherakada geldiarazteko eta kopuru hori handitzea sustatzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00292. Galdera, Nafarroan lan-istripuen kopuru handia jaisteko neurriei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroan lan-istripuen kopuru handia jaisteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri zehatz hartuko dira gure erkidegoan lan-istripuen kopuru handia jaisteko?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/POR-00293. Galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko etorkizuneko foru-legean aurreikusten diren zerga-aldaketei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko etorkizuneko foru-legean aurreikusten diren zerga-aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak irailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer aldaketa fiskal proposatuko ditu kontseilariak zerga-neurriei buruzko legean?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/POR-00294. Galdera, Euskara Nafarroa osoan inposatzeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Euskara Nafarroa osoan inposatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuoko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Onartuko al duzu Bilduk guri batua-euskara inposatzea Nafarroa osoan?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00295. Galdera, arrazoizko prezioko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, arrazoizko prezioko etxebizitzak eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehen-dakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak tokiko agintariak –udalak eta kontzejuak– premiatuko al ditu eta horiekin negoziatuko al du lurzorua liberatzea arrazoizko prezioan, espekulaziorik egitea galaraziz, nafarrendako arrazoizko prezioko etxebizitzak eraikitzea ahalbidetzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00296. Galdera, belaunaldi-erreleborako laguntzako CAMVIO programari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, belaunaldi-erreleborako laguntzako CAMVIO programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak irailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela egun batzuk aurkeztu zen sustapen ekonomikoko eremuei buruzko lege-proiektua, txikizkako merkataritza bultzatzeko. Egundutako geroago, CAMVIO izeneko proiektua aurkeztu zen, Nafarroako Merkatarien Elkartearekin batera, kasuko esparruan belaunaldi-erreleboa bilatzeko helburuarekin.

Horregatik galdetzen diogu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari ea zer balorazio egiten duen Nafarroako Merkatarien Elkarteak sustatutako ekimen horretaz eta zer neurri hartzen ari diren bere departamentuan merkataritzan belaunaldi-erreleboari begira.

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00297. Galdera, jakiteko zertan den eskualdatzeke dauden eskumenen eskualdaketa

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, jakiteko zertan den eskualdatzeke dauden eskumenen eskualdaketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako eta Berdintasuneko kontseilari Félix Taberna Monzón jaunak ahoz erantzun dezan:

Trafiko-eskumenaren eskualdaketa bideratu ondoren, zertan dira Estatuarekin egindako negoziazioak, Foruaren Hobekuntzan jasotako I + D+G eskumenen eta Nafarroarako beken eskumenen eskualdaketa osatzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-24/POR-00298. Galdera, etxebizitza publikoa eraikitzea sustatzeko neurri buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, etxebizitza publikoa eraikitzea sustatzeko neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko du urtean 25.000 euro baino gutxiagoko errentak dauzkaten herritarrei zuzendutako etxebizitza publikoak eraikitzea sustatzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00299. Galdera, Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, irailaren 26ko osoko bilkurarako:

Nafarroako Gobernuak lehendakariak aurreikusi al du Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren arteko lankidetzaz hitzarmen bat prestatzea, trafikoaren eskumena behin eskualdatuta foru-erkidegoko errepideak zaintzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00300. Galdera, Espainiako Gobernuak lehendakariarekin izan den bileran landuko diren gaiei buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Espainiako Gobernuak lehendakariarekin izan den bileran landuko diren gaiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, 2024ko irailaren 26ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin.

Espainiako Gobernuak lehendakariarekin laster izan den bileran, zer gai proposatuko dituzu?

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00301. Galdera, tentsiopeko esparruak izendatzeari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, tentsiopeko esparruak izendatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarduera egin behar ditu oraindik Etxebizitza Departamentuak Nafarroan tentsiopeko esparruak izendatzeko eta non aurreikusten du definitzea lehenbizikoa?

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00302. Galdera, Nafarroarekin konprometitutako azpiegiturak egiteko Estatuak egiteke dituen inbertsioei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroarekin konprometitutako azpiegiturak egiteko Estatuak egiteke dituen inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak irailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiaren datuen arabera, Nafarroa da Estatuak inbertsio gutxien egin duen autonomia-erkidegoa inbertsioei buruzko zifrak ezagutzen diren zazpi urteotan.

Datuak ikusita, planifikatuta al duzu ekintzarik Nafarroarekin konprometitutako azpiegiturak garaiz eta behar bezala egiteko Estatuak egiteke dituen inbertsioak berma ditzan?

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00303. Galdera, Arasti kontseilariaren 2024ko uztailaren 1eko foru-agindua ez betetzeari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Arasti kontseilariaren 2024ko uztailaren 1eko foru-agindua ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galdera hau egiten den egunean, zure Gobernuak zergatik ez du bete Arasti kontseilariaren 2024ko uztailaren 1eko foru-agindua?

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea